


## Euskadiko gazteen % 96,6 sexu-aldaketaren alde dago

2020an, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 96,6 sexu-aldaketaren edo genero-berresleipenaren alde agertzen zen, baldin eta pertsona bat identifikatzen den generoa eta bere sexu-organoak bat ez datozen eta ebakuntza hori egin nahi duen.

Sexu-aldaketaren alde dauden gazteen ehunekoak gora egin du, eten gabe, azken urteetan.

Sexu-aldaketaren alde dauden Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak 2020* txostenaren datuen aurrerapena)